

URTEKO TXOSTENA 2015

PROYECTO
HOMBRE
GIZAKIA
HELBURU



30
Años | Urte

Gizakia Helburu Gipuzkoa
Izan Fundazioa



Lege Gordailua: SS-1516/05
GIPUZKOA

www.proyctohombregipuzkoa.org



FUNDACION
IZAN
FUNDAZIOA

PROYECTO
HOMBRE
GIZAKIA
HELBURU



Q
2 0 0 7

Mantendu
ezazu aurpegia
eguzkiaren
argia begira
eta ez dituzu
itzalak
ikusiko

HELEN
KELLER



Aurkibidea

6 / AURKEZPENA

9 / HEZKUNTZA-TERAPIA ARLOA

17 / TRATAMENDURAKO LAGUNTZA PROGRAMAK

23 / ERABILTZAILEAREN PERFIL OROKORRA:

- PERFIL OROKORRA
- ARTATUTAKO EMAKUMEEN BERARIAZKO PERFILA

28 / ERABILTZAILEEN JARDUEREN LABURPENA

30 / GIZA BALIABIDEAK

33 / 30. URTEURRENEKO JARDUERAK

36 / KANPO KOMUNIKAZIOAK

38 / LAGUNTZA EKONOMIKOAK

40 / ASEBETETZE INKESTAK

Aurkezpena

BERRIZ ERE GURE PROGRAMAREN BILAKAERA JARRAITZEN DUTEN GUZTIEKIN –INSTITUZIOAK, LAGUNTZAILEAK, KOLEKTIBOAK...– ETA, ORO HAR, GIPUZKOAKO GIZARTEAREKIN JARTZEN GARA HARREMANETAN 2015. URTEKO GIZAKIA HELBURUREN JARDUNAREN EMAITZA EZAGUTZERA EMATEKO.

2015ean zehar Gizaki Helburun 744 pertsona atenditu ditu, 565 gizonezko eta 179 emakumezko (807 programa hasi gabe ere bertaratu eta informazioa eskatu dutenak kontuan hartuz gero). Aldi berean, Martuteneko Espetxean beste 78 lagun artatu dira; haietariko 14 kartzelatik irten dira programa egitera, zigorra betetzeko era alternatibo gisa. Artatutakoen kopurua ez da nolanahikoa; areago, iazkoa baino handiago da; 3 pertsona gehiago.

Erabiltzaileek gehien kontsumitzen duten droga alkohola da, beste behin ere; dena den, guztien ezaugarri nagusietarikoa da, hain zuzen, polikontsumitzaileak direla. Nabarmendu behar dugu hala ere lehen aldiz, 30 urtetan gure erakundearen programa batek emakume gehiago atenditu dituela gizonezkoak baino. Itxaro Programan hain zuzen ere Urrian (alkohol-kontsumotik ondorioztatutako arazoekin zuzendutako programa) 10 emakumek eta 7 gizonek jaso dute arreta.

89.926 aktibitate programatu dira, erabiltzaileei banaka nahiz taldeka zuzenduak, eta haietatik 82.881 gauzatu dira (%92,2). Familiei dago-kienez, 11.029 aktibitate programatu dira, eta haietatik 8.507 gauzatu dira (%77,1). Aktibitate kopurua, bada, aintzat hartzekoa da, oso, eta gainera askotarikoak izan dira, Banakako Elkarriketak direla, Familia askoko Taldekoak direla, bestelakoak direla.

Berriro azpimarratu behar dugu, beste behin ere, bolondresen partaidetza. 115 pertsonak laguntza eman digute Gizakia Helbururen hainbat alorretan.

Gainerakoan, gure Erakundeak jarraitu du beste urte batez hainbat elkarte eta instituziorekin elkarlanean: Buruko Osasun Zentroak, Usurbilgo Sendategia, Katea-Legaia, Gizarte Langileen Elkargoa, Caritaseko Aterpea, Euskal Herriko

Unibertsitatea, Inmaculada Ikastetxea, Sorabilla, Deustuko Unibertsitatea, Martuteneko Espetxea, Terapia Familiarreko Euskal Elkarte.

Ez dugu txosten hau bukatu nahi Gizakia Helbururen lana ahalbidetu duten pertsona, erakunde eta instituzio guztiei eskerrak eman gabe. Lehenik eta behin, erabiltzaileei eta haien senideei, zeren eta haien ahalegina eta inplikazioa baitira programen protagonista nagusiak.

Bigarrenik, Donostiako Elizbarrutiari eta kongregazio erlijiosoei, erabiltzen ditugun instalazioak musu truk uzten dizkigute eta.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren Departamentuak, Eusko Jaurlaritzako Osasun, Enplegu eta Gizarte Politiken eta Administrazio eta Justizia Sailek, Gipuzkoako Udalek, Orona S. Koop.-ek, Iberdrola Fundazioak, Laboral Kutxak, Elikagaien Bankuak eta gainerako pertsonak eta erakundeek erakutsi diguten sentiberatasuna eta inplikazioa ere goraipatu nahi ditugu.

Era berean, behar-beharrezkotzat dugu lan-kidetzan jardutea gizarte laguntzaileekin, prebentzio teknikariekin eta harrera-erresistentzietako profesionalekin, Buruko Osasun Moduluekin, Lurraldeko Auzitegiarekin eta Martuteneko Espetxearekin.

Izaskun Sasieta

IZAN Fundazioko Programen Zuzendaria

1983. URTEAN DONOSTIAKO ELIZBARRUTIAK GAZTE TOXIKOMANOEN ETA BEREN FAMILIEN PROBLEMATIKA AZTERTZEA ERABAKI ZUEN. HALA, ORDUAN GOTZAIN ZEN JOSÉ M^a SETIEN CE.I.S.EKIN (ITALIAKO ELKARTASUN ZENTROA) HARREMANETAN JARRI ZEN.

HONA HEMEN HARREZKERO EMAN DITUGUN PAUSOAK:

1983	Gerora programaren arduradun izango zen Iñaki Aldabaldek Ce.I.S bisitatu zuen Erroman.
1984	IZAN FUNDAZIOA eratu zen.
1985	Gipuzkoako Gizakia Helburu ireki zen.
1990	Donostiako Programak, Bilbo eta Gasteizkoarekin batera, SUSTATU'90 Gizarte Zerbitzuen Lan Institutuzional Onenaren Saria jaso zuen, Eusko Jaurilaritzak eta Autonomia Erkidegoko hiru Aldundiek sustatuta.
1990	Bilbo eta Gasteizko programekin batera, Sabino Arana Fundazioa Saria jaso zuen, <i>Gizarte Lan Onenari</i> eskainitakoa.
1991	Donostiako Gizakia Helburu-k "Doctor Álvaro Navajas " <i>Jardun Juridikorako Eskolako Patronatuaren Giza Balioentzako I. Saria</i> jaso zuen giza duintasunaren alde egindako lanagatik.
1992	Donostiako Gizakia Helburu-k <i>Hiritarren Merezimenduaren Domina</i> jaso zuen.
1997	GIZAKIA eta JEIKI fundazioekin batera, <i>Lan Humanitarioaren Tonetti Saria</i> eman zitzaion.
2001	EUSKALITEk Erabateko Kalitatearekiko Konpromisoaren Diploma eman zion IZAN Fundazioa-Gizakia Helburu-ri.
2002	Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako I. Gizartekintza Saria Gizarte Zerbitzuetako Kalitateari.
2007	Izan Fundazioa – Gipuzkoako Gizakia Helburuk Euskalitek (Kalitaterako Euskal Iraskundeak) esleitutako « Kudeaketako Kalitatearen Zilarrezko Q »a lortzen du.
2008	Gizakia Helburu – Izan Fundazioko bolondresen « Bolondresen 2008 » saria jasotzen dute.
2014	Izan Fundazioa Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako lankidetzaren erakundea izatea lortzen du.



Hezkuntza -terapia **ARLOA**

XEDEA:

Drogamenpekotasunen tratamenduen esparruan denetariko jardunbide eta zerbitzuen sorkuntza, garapena eta hobekuntza sustatzea eta arrisku edota babesgabetasun egoeran dauden nerabeen eta haien senideen arazoei heltzea.

IKUSPEGIA:

Gure barneko egoerari eta ingurukoari azterketa bat egin eta gero, bi urteren buruko epeari begira (2105-16), Organizazioaren Ikuspenak garamatzen eszenarioa honako hau da:

> ERANTZUTEA

- Finantzatzen gaituzten instituzioen eskakizun gero eta handiagoei.
- Ibilbide Tradizionalaren Gizarteratze fasea behin betiko finkatu beharrari.

> SENDOTZEA

- Programen emaitza terapeutiko-hezitzaileei.
- Erabiltzaileen eta haien senideen asebate-maila handiei.
- Oreka ekonomikoari eta iraunkortasunari.
- Fundazioaren baitan IZAN gisa dugun autonomiari.

> PROIEKZIOA

- Gizartean ikusgaitasun handiagoa eta hobe lortzea, inguruan txertaturiko organizazio konpromisoduna garenez gero

PROGRAMA tradizionala

HARRERA FASEA



Ulia-Enea Eguneko
Zentroa, Donostia



KOMUNITATE TERAPEUTIKOAREN FASEA



San Millan Zentroa, Lasao
(Zestoa)



GIZARATERATZE FASEA



Gizarteratze Zentroa,
Donostia

Programa Tradizionala Gipuzkoako Gizakia Helburu-k hasieratik garatu izan duen Programa ereduari dagokio. Drogak maila pertsonalean ez ezik harremanetan eta gizarte mailan nabarmen kaltetu dituen drogaren mendeko pertsonen zuzenduta dago.

Batez ere opiazeoekiko mendekotasuna duten pertsonen eskaintzen die laguntza, integrazio sozial urria edo inolakoa duten horiei. Kolektibo horri errehabilitazio integrala lortzeko alternatiba eskaintzen die, erabiltzaileek drogomenpekotasuna gainditzeko dituzten ahalbideetan konfiantza izatea oinarritzat hartuta. Eredu honen bitartez pertsona ugari gizarteratu ahal izan dira arrakastaz.

Bereizitako **hiru fase ditu: Harrera, Komunitate Terapeutikoa eta Gizarteratzea**. Bi urte eta erdi irauten du gutxi gorabehera, kontuan hartuta azkeneko urtea Gizarteratzeko dela. Beraz, erabiltzaile bakoitzak Programa aurrera eraman eta aldi berean erabat normalizatutako bizimodua eraman dezake.

DATUAK

SARRERAK:	147
ALTA TERAPEUTIKOAK:	37
BAJAK:	97
> Kanporatuak	27
> Deribazioak	9
> Espetxeratuak	4
> Borondatezkoak	56
> Besteak	1

BESTE PROGRAMA BATERA BIDERATUAK:	21
> Programa Intentsiboa	10
> Itxaro Egoitzazko Alkohol Programa	5
> Alkohol Programa Ambulatorioa	1
> Eraiki Programa	3
> Programa Irekia	2

PERTSONAK 2015-12-31n: 128

**(*) ARRETA JASO DUTEN
PERTSONAK: 283**

(*) Arreta jaso duten pertsonen guztizko kopuruan ez dira zenbatu bertan aurkeztuz informazioa eskatu duten 15 pertsonak, lailbide honetan Programa hasi ez dutenak.

**ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA,
SEXUAREN ARABERA BANATUTA:**



51



232

EGOITZA ALTERNATIBOA



Uri-Gain Egoitza
Alternatiboa, Donostia

GIZARTERATZEKO
LAGUNTZA MODULO

Gizarteratzeko Laguntza
Moduloa, Donostia

Era berean, IZAN Fundazioak Donostiako **Uri-Gain Zentroa** kudeatzen du, zentroaren titularrak Maria Sortzez Garbiaren Semeak izanik. Zentroaren helburu nagusia hau da, egoitza-laguntzaren bidez opiaseoekiko mendekotasuna duten pertsonen Programan sartzea ahalbidetzea, gizarteratze-maila urria duten edo gizarteratu gabe dauden pertsonak direlarik.

DATUAK

(*) SARRERAK:	96
(*) IRTEERAK HELBURUAK LORTUTA:	51
BAJAK:	44
> Kanporatuak.....	22
> Borondatezkoak	14
> Familia	6
> Besteak	2

(*) 50 pertsona egoitzazko fasera eta 1 egoizaz besterakoa.

PERTSONAK
2015-12-31n: 21

ARRETA
JASO DUTEN
PERTSONAK: 116

ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA,
SEXUAREN ARABERA BANATUTA:

24 92

Programa Tradizionalak **GIZARTERATZEKO LAGUNTZA MODULUA (M.A.I.S.)** ere eskeintzen du Donostiako Gizarteratze Zentroan gauzatzen delarik. Opiaseoekiko mendekotasuna duten pertsonen ematen die arreta. Errehabilitazio aldiko hezkuntza-terapia prozesua amaitzeaz dauden edo amaitu duten eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak dira.

Autonomia pertsonal handiagoa dutenean eta espazio bananduak erabiliz, Gizarteratze Zentrokoetatik bereizita, egoitzazko laguntza ematea da asmoa –aldeztatik baldintzak, arauak eta eskubideak adierazten dituen kontratu pertsonala sinatuz–, sei hilabetetik hasi eta gehienez urte eta erdira arte luza daitekeena.

PROGRAMA intentsiboa

HARRERA FASEA



Eguneko Zentroa,
Hernanin

KOMUNITATE FASEA



Sustriak Zentroa,
Hernanin

GIZARTERATZE FASEA



Gizarteratze Zentroa,
Hernanin

1995. urtearen erdialdera abiarazitako ereduari dagokio. Aurreko eredua oinarri hartuta, egiturari eta metodologiari dagokienez aldaketa batzuk barneratu ditu drogak kontsumitu arren gizartean eta familian neurri batean integratuta jarraitzen duten drogaren mendeko pertsona batzuen premiei eraginkortasun handiagoaz erantzutearren.

Pertsona horiei Programaren alderdi jakin batzuk, alegia jarreretan, norbere balore-eskalaren eta nork bere burua ezagutzeko eta heltzeko prozesuaren azterketan... eragina duten alderdiak kanpoko ingurunetik urruntzeko denborarik eman gabe aurrera eramateko aukera ematen die.

Era berean, eta substantzieko mendekotasunaz gain alterazio psikikoak dituzten pertsonen hezkuntza-terapia prozesua eta arreta psikiatrikoa uztartzeko aukera ematen die. Ibilbideak, batetik, tratamendu psikiatrikoan lagundu eta berau betetzeko aukera eskaintzen du eta, bestetik, prozesuan orientabidea eta laguntza eskaintzen du.

Ibilbide hau ere **hiru fasez** osatuta dago, eta oro har urte eta erdi inguru irauten du guztira.

DATUAK

SARRERAK: 149

ALTA TERAPEUTIKOAK: 28

BAJAK: 59

- > Kanporatuak..... 3
- > Borondatezkoak49
- > Espetxeratuak 1
- > Deribazioak 3
- > Besteak..... 3

**BESTE PROGRAMA
BATERA BIDERATUAK:** 50

- > Programa Tradizionala..... 8
- > Programa Irekia.....24
- > Eraiki Progama..... 7
- > Alkohol Programa Ambulatorioa..... 2
- > Itxaro Programa..... 9

PERTSONAK 2015-12-31n: 100

(*) **ARRETA JASO DUTEN
PERTSONAK:** 237

(*) Arreta jaso duten pertsonen guztiko kopuruan ez dira zenbatu bertan aurkeztuz informazioa eskatu duten 55 pertsonak, ibilbide honetan Programa hasi ez dutenak.

**ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA,
SEXUAREN ARABERA BANATUTA:**

45

192

PROGRAMA irekia

Sustantzien kontsumoarekin arazoak eduki arren bizitza familiarra, laborala eta soziala mantentzeko gair diren pertsonen eskeintzen die arreta. Ordutegi malgua du beraien bizaitzeko ohiko jarduerak aurrera atera ahal izateko. Bereizitako hiru fase ditu: lehena Harrera Irekiari dagokiona, bigarrena Terapiia Faseari dagokiona eta hirugarrena Segimendu Faseari dagokiona. Harrera Fasea gaingiduz ero, Terapiia Fasea igarotzeko fase horrek planteatzen dituen jarduerak guztiekiko konpromiso aktiboa hartu behar da berriro.

DATUAK

SARRERAK:	65
ALTA TERAPEUTIKOAK:	22
BAJAK:	12
> Borondatezkoak	9
> Kanporatuak	1
> Deribazioak	1
BESTE PROGRAMA BATERA BIDERATUAK:	3
> Programa Intentsiboa	2
> Eraiki Progama	1

PERTSONAK
2015-12-31n: **79**

ARRETA
JASO DUTEN
PERTSONAK: **115**

ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA,
SEXUAREN ARABERA BANATUTA:



28



87



alkohol PROGRAMA

> ANBULATORIOA

Alkohol Programak edanarekin arazoak dituzten erabiltzaileei arreta eskaintzen die. Helburua haxe da, edari alkoholduen kontsumoa murriztea edo ezabatzea, erabiltzailearen diagnostikoaren eta eskariaren arabera.

Hasieran diagnostiko fase bat dago, bi hilabete inguru irauten duena. Fase horretan, terapeutak erabakitzen du erabiltzailea zerbitzu honetan sartu edo Programaren beste programa batzuetara (Tradizionala, Irekia, Intentsiboa) edo kanpoko zerbitzuetara eraman.

Tratamendua anbulatorioa da, erabiltzailearekin hitzorduak jarritz, eta hark jarduera kolektiboetan (taldeak eta mintegiak) sartzeko aukera ere badu, baldin eta subjektuaren ezaugarriak taldeko osagaien perfilekin bat badatoz eta hark borondatez onartzen badu.

Gainera jarduerak egiten dira familiarekin, baldin eta erabiltzailearen segimenduan parte hartzen ari bada. Gizakia Helburu-ren gainerako programekin, Alkohol Programak informaziozko mintegiak eta auto-laguntza taldeak antolatzen ditu problematika hau duten erabiltzaileekin, edo gerora edaten berriro ez hasteko bertaratzea gomendatzen zaienean.

DATUAK

SARRERAK: 65

ALTA TERAPEUTIKOAK: 15

BAJAK: 19

- > Borondatezkoak 12
- > Deribazioak 5
- > Espetxeratuak 1
- > Besteak 2

BESTE PROGRAMA

BATERA BIDERATUAK: 36

- > Programa Tradizionala 2
- > Programa Intentsiboa 22
- > Programa Irekia 4
- > Itxaro Programa 8

**PERTSONAK
2015-12-31n:**

28

**ARRETA
JASO DUTEN
PERTSONAK:**

98

**ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA,
SEXUAREN ARABERA BANATUTA:**

 **29**

 **69**

> EGOITZAZKOA – ITXARO PROGRAMA

Edanak eragindako arazoak artatzeko programa osoa da.

Helburu zehatzak:

- > Erabiltzaileen bizi-kalitatea hobetzea lanaren, familiaren eta gizartearen esparruan eta arlo pertsonalean.
- > Erabiltzaileen eta familiaren, adiskideen eta lagunen arteko komunikazioa hobetzea.
- > Erabiltzaileen artean rolak eta arauak onartzeko gaitasuna garatzea.
- > Erabiltzaileei euren burua hobeto ezagutzen laguntzea: autoezagutza historikoa, kognitiboa eta afektibo-emozionala.

Honako hauek dira jarduera nagusiak: banakako elkarrizketak, taldeko lana, familiei laguntzea, berriz ez erortzeko prebentzioari buruzko informazio-mintegiak, gizarte-trebetasunak.

DATUAK

SARRERAK: 24

BAJAK: 6

- > Borondatezkoak 4
- > Kanporatuak 2

BESTE PROGRAMA

BATERA BIDERATUAK: 19

- > Programa Tradizionala 17
- > Alkohol Programa Ambulatorioa 1
- > Programa Intentsiboa 1

PERTSONAK
2015-12-31n:

12

ARRETA
JASO DUTEN
PERTSONAK:

37

ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA,
SEXUAREN ARABERA BANATUTA:



14



23

Eraiki PROGRAMA

Gaixotasun mental larria izan eta sustantzien gehiegizko erabilera duten pertsonentzat eta haien familientzat zuzendutako programa da.

Helburuak:

- > Sustantziak gehiegi hartzen dituzten eta nahaste mental larria adierazten duten Gizakia Helburura datozen pertsonen eta familieen arreta pertsonalizatua eman.
- > Programa honen bidez, erabiltzaileari eta haren familiari, helburuetan, denboretan eta egituretan, arreta zehatzagoa eta pertsonalizatua ematen dien zerbitzua gehitu nahi dugu programara.
- > Zerbitzuaren azken helburua da erabiltzaileari gaixotasuna eta haren psikologia-, gizarte- eta osasun-arloko ondorioak ezagutzen laguntzea, baita ahal diren autonomia-mailetara heltzeko behar dituzten baliabideak erabiltzeko aukera ematea ere.

DATUAK

SARRERAK: 18

ALTA TERAPEUTIKOAK: 6

BAJAK: 8

- > Borondatezkoak 8

PERTSONAK
2015-12-31n:

57

ARRETA
JASO DUTEN
PERTSONAK:

71

ARTATUTAKO PERTSONEN KOPURUA,
SEXUAREN ARABERA BANATUTA:



16



55

AIPATUTAKO PROGRAMEZ GAIN, GIZAKIA HELBURU-K **FAMILIAREN ESKU-HARTZEAN** PARTE HARTZEN DU BI JARDUNBIDE DAUDELARIK:

Bata drogaren mendeko pertsonaren errehabilitazio prozesuaren kalitatea hobetzera zuzenduta dago. Bestea familiei arreta eskaintzera bideratzen da, seme-alabaren prozesuaz harantz Auto-Laguntza taldeen bitartez eta Logoterapia zerbitzua eskainiz.

Urtean zehar **1.354 senide/lagun-ek** hartu dute parte programatutako hainbat jardueretan.

Anai-Arreba	470 (%34.71)	Amona	12 (%0.89)
Ama	353 (%26.07)	Lehengusu	9 (%0.66)
Aita	246 (%18.17)	Aitona	8 (%0.59)
Bikote	193 (%14.25)	Koinata	5 (%0.37)
Izeba	30 (%2.22)	Koinatu	5 (%0.37)
Osaba	23 (%1.70)		

- ↘ Banakako eta taldekako aktibitate ohikoez gain (*Topaketa Jatorrizko Familiarekin, Topaketa Beraren Familiarekin, Topaketa Bikotekidearekin, Elkarrizketa Jatorrizko Familiarekin, Elkarrizketa Beraren Familiarekin, Elkarrizketa Bikotekidearekin, Famili anitzeko Taldea, etc.*), Abenduan Donostian ospatutako Biltzar Orokorra azpimarratuko genuke.



*Tratamenduak
laguntza*
ZERBITZUAK

Gizarte-lana

ZERBITZUA

Zerbitzu hau gizarte-langile batek garatzen du eta honako hauek ditu helburu: erabiltzaileei beren eskariei edota premiei erantzuteko dauden baliabideei buruz informatzea eta orientatzea, egindako eskaera baten aurrean dauden alternatiba desberdinei buruz aholku ematea, erabiltzaileak inguruneko baliabideekin koordinatzea, irtenbideak bilatzen laguntzea eta beren konpromisoei erantzun eta beren dokumentuak formalizatu ahal izateko heztea eta motibatzea.

Gizakia Helburu-n sartzen diren erabiltzaile guztiei zuzendutako zerbitzua da, lehenengo elkarriketa izan ondoren zerbitzua eskatzen duten horiei. Erabiltzaileak maila sozio-ekonomikoan dauden baliabideen sarera hurbiltzen laguntzea du helburutzat, baliabide horiek erabil ditzaten, dituzten eskubideak kontuan hartuz eta dituzten betebeharrak errespetatuz.

ESKARIAK	
SARRERAK	
Aldi baterako ezgaitasuna	20
Lanbideko prestazioak	15
Laguntza sozialak	11
INFORMAZIOA	
Laguntza Ekonomikoa	99
Lanbideko prestazioak	15
Minusbaliotasuna	13
Aldi baterako ezgaitasuna	10
Ezgaitasun iraunkorra	5
Beste batzuek	86
JARRAIPENA	
Laguntza bereziak	305
Aldi baterako ezgaitasuna	98
Ezgaitasun iraunkorra	8
Kanpoko erakundeekin komunikazioak	16
Zertifikatuak	224
Gizarteratze Errekurtsoa Inprimakia + Gizarte Txostena	24
Beste batzuek	68

Oinarrizko heziketa

ZERBITZUA

Ikasleei ahozko eta idatzizko ulermenean, matematika kalkuluetan eta problemen ebazpenean oinarrizko trebetasunak eta estrategiak lortzeko edo sendotzeko aukera eskaintzen zaie, baita eremu pertsonalean eta profesionalean sortuko zaizkien egoerei aurre egin ahal izateko eremu soziokulturalari dagozkion beste alderdi batzuk ere. Ahal den neurrian, dagokion titulazioa/akreditazioa lortzeko berrespena izatea da asmoa.

Aurrekoetan bezala, Prestakuntza Donostiako Ignacio Zuloaga Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Ikastetxe Publikoarekin lankidetzan aurrera eraman da eta ikasleak jarduera beren borondatez hastean Harrera eta Komunitate fasean zeuden erabiltzaileak izan dira.

2014-2015 IKASTURTEA

PERTSONA MATRIKULATUAK	48
GAINDITZEN DUTE	20 (%41,6)
EZ DUTE GAINDITZEN	24 (%50)
GIZAKIA HELBURU UZTEN DUTE	4 (%8,3)
ARTATUTAKO PERTSONAK	114
BIGARREN HEZKUNTZAKO GRADUAZIOA LORTZEN DUTE	7

- ↘ Urtero bezala, kultura eta aisialdiko irteerak egin dira ikasleekin. Esaterako, Lasaoko Komunitate Terapeutikoko ikasleekin ekainean Azpeitiko Ingurugiro etxera egindakoa aipa dezakegu.



Juridiko penitentziarioa

ZERBITZUA

Laguntza juridiko-penitentziarioa Kriminologian jadanik klasiko bihurtutako droga-delinkuentziaren problematikan oinarritzen da, droga toxikoen kontsumoa oinarritzat duen delituzko ekintza izanik. Substantzia horiek eskuratzeko premia ekonomikoak eragindako delituak dira, edo substantzia horiek eskuratzeko osasun publikoaren kontra eskala txikiagoan egiten diren delituak.

Zerbitzu honen helburu nagusia hauxe da, erabiltzaileei ezarritako kondena penalen kontrola eta segimendua egitea. 2015ean espetxearen neurri penal alternatiboak eskatu zaizkie Epaileei eta Auzitegiei. Neurri horien artean kondena etetea eta segurtasun neurriak dira nabarmentzekoak.

Martuteneko espetxean Programan sartu nahi zuten internoen segimendua egin da, zituzten kondenatarako soluziobide penalak emanez eta espetxetik atera eta gero Gizakia Helburu-n betearazpen segimendua eginez. Ildo honetan, Magrebeko pertsonen arreta pertsonalizatua eskaini diegu, arabiera menderatzen duen gure terapeuta baten bidez.

Azken finean hauxe lortu nahi da, sententzia penalak nahiz espetxeratzeko sententziak bete ordez Programa egitea, Epaileei, Auzitegiei eta Sistema Penitentziarioari erabateko berme juridikoa eskainiz.

Gainera gure erakundea GADen (Droga Mendekotasunen Arretarako Taldean) parte hartzen jarraitu du. Martuteneko Espetxeko Zuzendaritzarekin, zentro horretako tratamenduko Zuzendariordetzarekin eta Agipadekin batera, Terapia Zentro batera sar daitezkeen presoek egoera aztertzeko koordinazio handiagoa lortu dugu.

LABURPEN TAULA	
MARTUTENeko ESPETXEAN ARTATUTAKO PERTSONAK	78
ESPETXEAN TALDEAN ARTATUTAKO PERTSONAK	65
ESPETXEAN TERAPEUTEK EGINIKO BANAKAKO ELKARRIZKETAK	67
ESPETXETIK ATERATAKO PERTSONEN BORONDATEZKO ALTAK	3
ESPETXEAN ABOKATUAK ARTATUTAKO PERTSONAK	48
GIZAKIA HELBURU PROGRAMAN ARAZO JUDIZIALAK DITUZTEN ARTATUTAKO PERTSONA KOPURUA	120


Mediko-psikiatrikoa

ZERBITZUA


Arlo honetan egindako lanaren asmoa hauxe da, errehabilitazio prozesuan dauden drogaren mendeko pertsonen bizi-kalitatea eta osasun-egoera hobetzen laguntzea.

2015an irekitako historial klinikoan arabera bildutako datuak: 203

TRANSAMINASAK



C HEPATITISA




MANTOUX




HIES-A



ADIERAZLE BIRIKOAK B HEPATITISA



TRATAMENDU PSIKIATRIKOA (ZABALDUTAKO KASU KLINIKOEN %67,50a)




Erabiltzaileen **PERFILA**

PERFIL orokorra

Jarraian, arreta jaso duten pertsonen ezaugarriei buruzko datu batzuk laburbildu ditugu.

Orain eskeintzen dizuegun profila osatzeko, Gizakia Helburuk Gipuzkoan eskeintzen dituen prozesu terapeutikoetan arreta jaso duten erabiltzaileen ezaugarriak aztertu dira.

SEXUA



(*) BIZILEKUA


Herria	Kop.
AIZARNA	1
ALEGIA	5
ALGAMITAS	1
ALSASUA	1
ALTEA	1
ALTZO	1
ANDOAIN	10
ANOETA	1
ARONA	1
ARRASATE	9
ASTEASU	1
ASTIGARRAGA	8
ATAUN	1
AZKOITIA	10
AZPEITIA	4
BEASAIN	10
BELAUNTZA	2
BERGARA	4
BIDEGOIAN	1
BILBAO	1
BILLABONA	7
DEBA	1
DONOSTIA	215
EIBAR	11
ELGETA	1

Herria	Kop.
ELGOIBAR	5
ERMUA	3
ERRETERIA	44
ESKORIATZA	1
ETXALAR	1
GALDAKAO	1
GETARIA	2
HENDAIA	1
HERNANI	27
HONDARRIBIA	11
IBARRA	4
IDIAZABAL	1
IRUN	65
IRUÑA	3
IRURA	1
LANCIEGO	1
LASARTE-ORIA	34
LAZKAO	1
LEGAZPI	7
LEGORRETA	1
LESAKA	1
LEZO	3
LOGROÑO	2
MADRID	1
MUTRIKU	3


Herria	Kop.
OIARTZUN	14
OLAZAGUTIA	1
OÑATI	4
ORDIZIA	12
ORIO	2
PALAFOLLS	1
PASAIA	29
SANGÜESA	1
SEVILLA	1
SORALUZE	1
TOLOSA	16
URNIETA	8
URRETXU	4
URRUGNE	1
USURBIL	5
ZALDIBIA	1
VIELHA	1
ZARAUTZ	26
ZEGAMA	2
ZESTOA	4
ZIZURKIL	4
ZUMAIA	9
ZUMARRAGA	11

(*) Datu Erabilgarriak


DROGA NAGUSIA TRATAMENDUA HASI AURRETIK



LAN EGOERA




(*) ERREFERENTZIA NAGUSIA




(*) 2015ean izandako sarreraren, SEIT orrietatik ateratako datuak.

EGOERA ZIBILA



PROGRAMAN SARTU AURRETIK BIZIKIDETZA NOREKIN



Espezifikoa

PERFILA




Gizonezkoak




Emakumezkoak


EGOERA ZIBILA



DROGA NAGUSIA



LAN EGOERA



*Erabiltzaileen
jardueren*
LABURPENA

Egindako JARDUERA NAGUSIAK

JARDUERA	ERABILTZAILEAK	IRAUPENA
Autolaguntza Taldea	523	1 ¹ / ₂ h
GT-Genograma/Familiarra	82	4h
Talde Estatiko/Emoziozkoa	118	2h
Talde Dinamiko Ez Adierazia	86	1 ¹ / ₂ h
Hezibideko Esperientzia	39	2h
Tailerra	108	4h
Arduradunen Taldea	65	1 ¹ / ₂ h
Denbora Libreko Aktibitate Zehatzak	354	2h
Famili anitzeko Taldea	243	2h
Topaketa Orokorra	245	1h
Mintegia	402	2h
Aulki hutsaren dinamika	58	1h
Banakako Elkarrizketak	712	1h


Urtean zehar erabiltzaileak Aisialdiko hainbat jardueretan hartu dute parte. Horietatik azpimarragarrienak honako hauek:



ZURRIOLAKO
HONDARTZA




ZINEMALDIA




TRIALSIN
ERAKUSTALDIA



KURSAAL
ERAKUSKETA



UREDERRA
ERREKAREN
ITURBURUA




ZIENTZIA
MUSEOA

JARDUERAK OROTARA: **82.881**

Giza **BALIABIDEAK**

Pertsonala

Gizakia Helbururen langileak 48 izan dira, eta horiez gain beste 10 lagunek ere esku hartu dute, gaixotasun bajak ordeztzeko nahiz oporraldien hutsuneak betetzeko.



BATAZ BESTEKO ADINA:
42,7 urte

Era berean, Gizakia Helburuko profesionalek hainbat prestakuntza saiotan parte hartu dute. Anitza izan da, bestalde, ikastaroen tipologia: Psikodrama, ikuskapen klinikoa, etb...

Gizakia Helbururen profesionalek hainbat formazio-saiotan parte hartu dute. Denetarikoa ikastaroak egin dira, psikodrama saioetatik ikuskaritza klinikoetaraino.

Ikastaroren batean parte hartu duten pertsona desberdinak	53
Ikastaro desberdinen kopurua	95
Formazioan zuzenean inbertitutako orduak	1696
Inbertitutako orduak ikastaroko	17,85
Batez besteko iraupena ikastaroko	4,83
Orduak batez beste pertsonako	32
Pertsonak batez beste ikastaroko	3,69
Batez besteko balorazioa	7,45

AKTIBITATEAK, GENEROAREN ARABERA DESGLOSATUTA

	EMAKUME	GIZON
Pertsona desberdinak, ikastaroren batean parte-hartzaile	30	23
Ikastaro desberdinen kopurua	71	55
Formazioan zuzenean inbertitutako orduak	994	702
Inbertitutako orduak ikastaroko	14,07	12,76
Batez besteko iraupena ikastaroko	4,99	4,62
Orduak batez beste emakumeko	33,13	30,52
Emakumeak batez beste ikastaroko	2,8	2,76
Batez besteko balorazioa	7,48	7,41

Boluntarioritza

IZAN - Gizakia Helburu Fundazioak garatzen dituen programen borondatezko langileen kolektiboa, 2015. urtean berriro ere, oso heterogeneoa izan da. Oro har lan egin duten zereginen funtzioaren arabera banatzen direnez, denetarikoa aurkitzen ditugu: akademikoki kualifikatutako gazteak izan ohi dira (psikologoak, Terapia Familiarreko masterraren ikasleak...) esku-hartze zuzeneko aktibitateetan parte hartzen dutenak; adinekoek lan osagarrien ardura beren gain hartu ohi dute (telefono-arreta, lan administratiboa...)

Borondatezko 115 lagunek kolaboratu dute gure elkartearekin. Urtean 41 baja izan ditugu (erdia baino gehiago, lan arrazoiengatik) eta 25 sarrera berri, beste behin ere oso datu positiboa.

Erakundearekin kolaboratzeko gutxieneko konpromiso bat beren gain hartzea da sartzeko eskatzen zaizen baldintza bakarra (eskuragarri jartzen duten denbora, erregularutasuna, jarraikortasuna...), bai eta, jakina, geroago hartutako konpromisoak betetzea ere, misioa eta berau arautzen duen araudia errespetatzen dutelarik.

Gure Erakundearen bolondresen ezaugarriez ari garela, honako hauek nabarmen ditzakegu. Beste urte batez, aurrean ere emakumeak dira gehienak, nahiz eta zorionez gizonezkoen presentzia beste urte betez igo den.


SEXUA



↘ Urtero bezala, gure Erakundeak Borondatezkoen omenezko ekitaldiak eta prestakuntza ekintzak antolatu ditu.



OKUPAZIOA



30. *urteurrenako* **JARDUERA**



DATA HAIN BEREZIA OSPATZEKO HAINBAT JARDUERA ANTOLATU DITUGU URTEAN ZEHAR PROFESIONAL, ERABILTZAILE NAHIZ FAMILIEI ZUZENDUTAKOAK.



MAIATZEAN Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialean, Donostian **“BURUKO GAIXOTASUNAREN” MITOTIK PATOLOGIA ABAGUNETZAT HARTZERA** jardunaldia ospatu dugu.

Hainbat adituk hartu dute parte, irekiera ekitaldian Iñigo Urkullu Lehendakari jauna buru izan delarik.

Hain zuzen ere **Jose M^a Ayerra** (Psikoterapeuta, buruko patologia larrietan aditua), **Jose M^a Izeta** (Patologia larrien arduraduna, Eraiki Gipuzkoako Gizakia Helburu), **Roberto Pereira** (Santurtziko Buruko Osasun Zentroko burua – Osakidetza), **Ana M^a Ozcariz** (Psikologoa, Psikologia Klinikoan aditua), **Ángel Alayo** (SENDAGILE ARTEAN – Euskadiko mediku gaixoen arreta integraleko programakoa),



Aurora Elozegi (Epailea) eta **Imanol Querejeta** (Euskal Herriko Unibertsitateko Psikiatria irakaslea), azken honen ordez Izaskun Antizar, Arrasate eta Donostiako San Juan de Dios ospitaleetako Zuzendari Medikua.

Areto Nagusia topetaraino bete da ponentzia desberdinak entzuteko. Udaletxe desberdinen Gizarte Langileak, osasun-eremuko profesionalak, beste entitate sozialetako kideak, Psikologia, Erizaintza eta Medikuntza ikasleak, eta Estatuko beste Gizakia Helbururen lankideak bertan egon dira.

Jardunaldiaren balorazioa oso positiboa izan da partehartzaileen partetik, 7,64ko balorazioarekin.

UZTAILEAN erabiltzaile, senide, voluntario eta langileak elkartu gara. Jarduera xume baina era berean emozio handikoa izan da gertu ditugun pertsonekin egindakoa. Ulia-Eneako Harrera Zentroa izan da topaketa



lekua, Gizakia Helburuk duela 30 urte zabaldu zuen lehen Zentroa eta noski, ez gara ahaztu Iñaki Aldabalde programaren sustatzaileaz.

Ondoren, ibililaldia burutu dugu Uliaruntz. Ibilbide ederra, eta naturaz gozateko aukera aparta.


Bertan, kuaderno batzuek eskuragarri utzi ditugu nahi dutenentzat sentitu dutena adierazteko edo bertan testigantza bat idazteko.



URRIAN, Lasaoko pilotalekua txikia gelditu da hainbat programetako erabiltzaile eta langileekin lepo bete delarik. 200 lagun baino gehiago elkartu gara. Lasaoko Komunitate Terapeutikoak ongi etorri ezinhobea egin die bertara hurbildu diren guztiei pintxo ederrak eskainiz. Adin, genero eta perfil desberdinetako pertsonen errehabilitazioa prozesuan daramaten beraien esperientziak elkartrukatzeko aukera izan dute.

Denetik egon da. Musika emanaldiak, olerkiak, monologoak, magia trukoak, argazki erraldoia... eta guztia giro ezinhobean.

Azkenik, **ABENDUAN**, erabiltzaile eta senideen Biltzarra burutu da. Gizakia Helbururen historia jasotzen duen filmea eskaini da. Era berean, senideen testigantzak plazaratu dira beti ere modu positiboan.



Kanpo

KOMUNIKAZIOAK

Urtean zehar gure lanari buruzko informazio eskaera anitza jaso ditugu. Guztiak, honako taulan isladatu ditugu:

ESKAERA DATA	ESKATZAILEA
15-11-25	UPV-EHU
15-11-20	Leizaran Institutoa
15-11-12	El Diario Vasco
15-10-30	Anoeta Ikastola
15-10-22	Hernaniko Osasun Zentroa
15-10-17	Aho-hortzetako garbitasuneko Goi Mailako Gradua
15-10-09	UPV-EHU
15-10-01	Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (UPV-EHU)
15-10-07	Deustoko Unibertsitatea
15-10-05	Gizarte Hezkuntza - UPV - EHU
15-08-27	Berria
15-08-04	Onda Vasca
15-07-09	Naiz
15-06-15	Berria
15-06-02	Goierrri aldeko Udaletxeak
15-06-01	Noticias de Gipuzkoa
15-05-29	Cadena SER
15-05-29	Getaria aldeko Udaletxeak
15-05-14	Euskadi Irratia
15-05-15	ETB – “La Caja Negra” Saioa
15-05-11	Nazaret Zentroa
15-05-07	Euskal Herria Zuzenean ETB
15-05-07	ETB “Como en casa en ningún sitio” saioa
15-05-17	Azpeitiako Osasun Mental Zentroa
15-05-06	ETB
15-05-05	El Diario Vasco
15-04-21	Psikologia Fakultatea UPV-EHU
15-04-16	Onda Vasca
15-04-16	Cadena SER – Radio San Sebastián
15-04-08	Euskal Herria Zuzenean (ETB1)
15-03-26	Oiartzungo Osasun Zentroa
15-03-20	Euskadi Irratia
15-02-02	La Salle Andoain Ikastetxea
15-02-12	Gipuzkoako Erizainen Elkargo Ofiziala
15-02-11	Radio Nacional
15-02-09	El Diario Vasco
15-02-04	Diariovasco.com
15-02-04	Radio Euskadi
15-01-13	Axular Ikastetxea

LAGUNTZA

ekonomikoa

Asko dira Gipuzkoako Gizakia Helbururi ekonomikoki laguntza ematen dioten erakunde publiko eta pribatuak. Haiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, pertsonaren alde egiteagatik eta beren elkartasun konpromisoa berresteagatik.

PUBLIKOAK

↘ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA / GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

↘ EUSKO JAURLARITZA / OSASUN DEPARTAMENTUA, HERRI ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA DEPARTAMENTUA, ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKAK DEPARTAMENTUA.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

- Lasarte-Oria
- Lazkao
- Legazpi
- Lezo
- Mendaro
- Mutriku
- Oñati
- Ordizia
- Orio
- Pasaia
- Tolosa
- Urnieta
- Urretxu
- Usurbil
- Zaldibia
- Zestoa
- Zumaia
- Zumarraga

↘ AYUNTAMIENTOS

- Alegia
- Andoain
- Anoeta
- Arrasate
- Astigarraga
- Azkoitia
- Azpeitia
- Billabona
- Donostia
- Elgoibar
- Errenteria
- Eskoriatza
- Getaria
- Hernani
- Hondarribia
- Ibarra
- Idiazabal
- Irun
- Irura

PRIBATUAK

↘ ELIZA:


- Probidentziako Ahizpak
- Karitateko Ahizpa Mertzedarioak
- Frantziskotarrak
- KlarisaK

↘ ENPRESAK


- Orona S.Coop.
- Iberdrola Fundazioa
- Laboral Kutxa
- La Milagrosa Elkarte (Elgoibar)

Azchegetetze INKESTAK

Erabateko Kalitatearen aldeko konpromisoari men egiten jarraitzeko, erabiltzaileen, senideen, langileen eta boluntarioen artean hainbat satisfazio-inkesta egin dugu. Halaber, aurten Gizakia Helbururen aliantzen irudi soziala eta satisfazio-maila neurtzeko zundaketa bat ere egin dugu, bi urtean behin egin ohi duguna. Berriro ere, emaitzak oso positiboak izan dira, hurrengo tauletan ikus daitekeenez. Alabaina, gure erakundetik ez dugu ahaztu nahi etengabeko hobekuntza dela Programaosatzen duten pertsona guztien satisfazioa lortzeko bidea.




Erabiltzaileak

Inkestak: **323**Bataz besteko poztasuna: **8,20**

Nº		Oso									
		Txarra	Txarra	Erdipudi	Ona	Ona	Ona	Ona	Ona	Ona	Ona
1.	Programarekiko satisfazio maila	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2.	Arreta Ordutegia	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
3.	Lokalen egoera	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
4.	Puntualtasuna	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
5.	Programaren helburuen zure ezagutza	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
6.	Metodologia	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
7.	Taldearen tratua	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
8.	Taldeak egiten duen lana	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
9.	Beste erabiltzaileekin tratua	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
10.	Aisialdiko Jarduerak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
11.	Zure beharrak asetu dira	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
12.	Programak eskeintzen dituen zerbitzuak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
13.	Programan zure egonaldiaren emaitza	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

FAMILIAK


Familiako Esku-hartze paraleloa

Inkestak: **229**Bataz besteko poztasuna: **8,58**

Nº		Oso										Oso
		Txarra	Txarra	Erdirpudi	Ona							Ona
1.	Ordutegia	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
2.	Lokalak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
3.	Puntueltasuna	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
4.	Programaren helburuen ezagutza	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
5.	Familiarekiko lan metodologia	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
6.	Profesionalarekiko jasotzen duzun tratua	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
7.	Terapeutarekiko erlazioa	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
8.	Tratamenduan dagoen erabiltzailearen hobekuntza	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
9.	Zuen beharrak asetzen dira	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
10.	Erlazio familiarra hobetzeko jasotako pausak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
11.	Programarekiko duzun inplikazio mailaren emaitza	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
12.	Familiako esku-hartze paraleloarekiko satisfazio maila	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	


FAMILIAK

Auto Laguntza Taldeak

Inkestak: **75**Bataz besteko poztasuna: **8,33**

Nº		Oso Txarra	Txarra	Erdipurdi	Ona	Oso Ona					
1.	Ordutegia	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2.	Taldearen helburuen ezagutza	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
3.	Taldearen oreka	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
4.	Taldearen helburuen lorpena	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
5.	Taldean osatzen duten kideenganako konfidantza	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
6.	Taldearen entzute jarrera	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
7.	Taldeko sekretuak gordetzeko konpromezua	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
8.	Taldearenganako nire inplikazio maila	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
9.	Nire bizitza pertsonalerako onura	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
10.	Auto laguntza taldean partehartzeagatik satisfazio maila	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Boluntarioritza

Inkestak: **41**Bataz besteko poztasuna: **8,92**

Nº	Adostasun maila
1. Argi eta garbi ezagutzen ditut nire betebeharrak	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
2. Jasotzen dudana atentzioa egokia da	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
3. Tratu ona jasotzen dut	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
4. Nere gaitasunak ondo aprobetxatzen direla uste dut ..	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
5. Nire lanaren inguruko feedback-a jasotzea gustatuko litzaidake	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
6. Erakundeak nire lana baloratzen du	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
7. Arazo bat dudanean badakit nora jo	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
8. Nire lana hobeto egiteko iradokizunak egin ditzazkedala badakit	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
9. Egiten dudana programarentzat baliagarria da	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
10. Pozik nago programan egiten dudana lanarengatik ..	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10